

BRECHT, MILLAY, BAEZ ETA ARESTI HUGO CHÁVEZEN OMENEZ!

G. ENSSLIN & A. BAADER

Bada joera bat XXI.aren hasiera honetan. Lana ongi egiten duenari ongi egiten duela ukatzea. Lana ongi egiten duena bere burua flagelatzera behartzea. Ongi hitza deslegitimatzea. Ongia eta gaizkia iritzi kontua dela baieztatzea. Eta aukeran gaizkia da erakargarriena izan behar dena.

Gaizki aritzea da *cool, sexy, fashion*.


Elite zabarren loraldia: drogak ilegal eta prostitutak zapaldu mantenduta drogazale eta putazale diren erregeak, kiroleko zapatilak daramatzaten burtsako *brokerak*, txiroz jantzitako millonetiak etxerik ez dutenei babes ematen, lokuzioaren gaitasun minimorik gabeko presidentek, Europako Kontseiluak katapultatutako estatuburu demokratikoak, kontraesana koherenziaren gainetik, zapaltzailea askatzaile izateko bidean dagoenaren aurretik.

Horrek egiten du Chávez eraikuntza historikoa jasangaitza gaizkileentzat: kalean gozokiak saltzen dituen mutikoa ezin da iritsi pobreziaaren aurkako borrokara, ezin du elektrizitatea, ura eta internet unibertsalizatu. Ezin du ezleku batetik mundua eraldatu. Ez zaio ezer barkatuko: jainkoan sinestu eta marxismoa erabiltzea, militarra izatea, beisbola praktikatzea, abestea, alaia izatea, inbentziorako gaitasuna, umore zorrotza izatea, aliantza asmaezinak egiteko gaitasuna. Chávezen aurkako erra ez da soilik espolio natural eta sozialagatik aberasten ari zirenei bidea moztu dielako Venezuelak. Behekoarenganako gorrotoa da.

Pertsonaren, Arestik aldarrikatzen zuen pertsonaren borrokagatik: milesker komandante!

Hugo Chávez Fríasen omenerako hamaika lagunuen poemak itzul genitzakeen. Iraultzaileen heriotza gai hartutako testuak ekarri ditugu. Horretarako hautatu dugu espresionista izandako marxista batena –Brehtena– Lenini buruz, feminista pazifista batek –Millayk– Sacco eta Vanzettiren heriotzari idatzitakoa, progre batek –Baez– anarkistoi idatzitakoa, komunista abertzale batek –Aresti– Trotskiri idatzitakoa eta pornografo batek –Verlaine– komunako heroi Louise Micheli idatzitakoa.

Oraindik poema asko dago iraultzaileen heriotzei buruz. Aipa ditzagun adibidez: Brechten 1919ko Rosa Luxemburgentzako «Epitafioa» (1928an Kurt Weillek «Berlingo Requiem»erako erabili zuen), Ludwig Thomaren «Die Zundel» Klara Zetkini buruzko 1920ko poema, Maiakovskik 1929an idatzi zuen «Elkarrizketa Lenin burkidearekin» edo 1924ko «Vladimir Iltx Lenin», edo 1953ko Rafael Albertiren «Stalinen heriotzarengatik erredebte motela», Miguel Hernándezen «Errusia», Nicolás Guillénen «Stalin kapitaina», Nerudaren «Stalini gorazarrea», 1976ko Vladimir Solujinen «Joana Arc-ekoaren kontsigna» edota 1968ko Tamara Jirmunskaiaren «Emakume bat kosmosean» Valentina Terexkovaren espazioratzeari buruz.



<ezin da edozer defendatu baina bide guztiak dira zilegi>
 UMPs [ap]: Arbeiterrat für Kunst
 UMPs [ap]: Pamphletcoöperera





Lob des Revolutionärs

Wenn die Unterdrückung zunimmt
werden viele entmutigt
aber sein Mut wächst.

Er organisiert seinen Kampf
Um den Lohn Groschen, um das Teewasser
Und um die Macht im Staat.
Er fragt das Eigentum:
Woher kommst du?
Er fragt die Ansichten:
Wem nützt du?

Wo immer geschwiegen wird
Dort wird er sprechen
Und wo Unterdrückung herrscht und Schicksal die Rede ist
Wird er die Namen nennen.

Wo er sich zu Tisch setzt
Setzt sich die Unzufriedenheit zu Tisch
Das Essen wird schlecht
Und als eng wird erkannt die Kammer.

Wohin sie ihn jagen, dorthin
Geht der Aufruhr, und wo er verjagt ist
Bleibt die Unruhe doch.

Iraultzaileei gorazarre

Zapalketa handitzen denean
askok galtzen du kemena
baina haien adorea handitzen da.

Berak antolatzen du borroka
soldatako xentimo bakarraren alde, tearen uraren alde
eta Estatuaren barneko boterearen alde.
Jabetzari galdetzen dio:
nongoa zara?
Ideiei galdetzen die:
nori egiten diezue mesede?

Isiltasuna nagusi den lekuan
bera mintzatuko da
eta zapalketak agintzen eta patuak hitz egiten duen lekuan
izenak seinalatuko ditu berak.

Mahaian esertzen denean
deskontentua ere esertzen da.
Janariak zapore txarra du
eta gela estua dela garbi ikusten da.

Pertsegitzen duten lekura
joango da matxinada eta botatzen duten lekuan
urduritasuna geratuko da.

BRECHTEN LENIN

Aurkez dezagun Brechten poema. Testu gehiago dauzka Lenini buruz alemanak. Hauek ere euskaratzeke: «Pentsatzaileak etengabe egiten du laudorio» (1931), «Kujan-Bulakeko alfonbra ehuleek Leninen ohorez», «Alkandora marroia» (1933), «Inskripzio konkista ezina» (1934), «Ilitxen botako zuloa» (1935), «Urri handia» (1937), «Egiak batzen du» (1953), «Ibaien kanta» (1954), «Hiltzailea» (1956).

Honakoan alemanez konposatutako requiema dakarkigu, Hanns Eisler –gure beste maisua– musikari izan zuena. Leninen heriotzaren hamargarren urteurrenerako konposatu zuten. Testuan Brechtek lider iraultzailearen erabilgarritasuna azpimarratzen du heroi bihurtu beharrean.

Requiema ez zen Sobiet Batasunean estreinatu bere musika atonalarengatik, baina itzuli dugun atala salbuespena da, ez zen sistema dodekafonikoarekin konposatu. Aurreko lan baten birziklaia zen, tandemaren *Ama* (1931) antzezlanetik hartua.

Justice Denied In Massachusetts

Let us abandon then our gardens and go home
And sit in the sitting-room
Shall the larkspur blossom or the corn grow under this cloud?
Sour to the fruitful seed
Is the cold earth under this cloud,
Fostering quack and weed, we have marched upon but cannot conquer;
We have bent the blades of our hoes against the stalks of them.

Let us go home, and sit in the sitting room.
Not in our day
Shall the cloud go over and the sun rise as before,
Beneficent upon us
Out of the glittering bay,
And the warm winds be blown inward from the sea
Moving the blades of corn
With a peaceful sound.

Forlorn, forlorn,
Stands the blue hay-rack by the empty mow.
And the petals drop to the ground,
Leaving the tree unfruited.
The sun that warmed our stooping backs and withered the weed
uprooted—
We shall not feel it again.
We shall die in darkness, and be buried in the rain.

What from the splendid dead
We have inherited —
Furrows sweet to the grain, and the weed subdued —
See now the slug and the mildew plunder.
Evil does overwhelm
The larkspur and the corn;
We have seen them go under.

Let us sit here, sit still,
Here in the sitting-room until we die;
At the step of Death on the walk, rise and go;
Leaving to our children's children the beautiful doorway,
And this elm,
And a blighted earth to till
With a broken hoe.

[1927]

Edna St. Vincent Millay

Justizia ukatua Massachusetts-en

Utz ditzagun atzean, beraz, gure lorategiak eta goazen etxera
eta eser gaitezen egongelan,
zein lore hazi beharko litzateke hodei honen azpian? Lirioa edo artoa?
Hodei honen azpian
garratza da hazi ugalkor honentzako lur hotza,
belar on eta txarrak sustatu ditugu, gainean desfilatu dugu baina ez gara konkistatzeko gai;
gure labanen ahoak biratu ditugu eta gure aitzurrak zurtoinen kontra daude.

Utziguzue etxera joaten eta egongelan esertzen.
Gure eguncan ez du
hodeiak alde egingo eta eguzkia ez da lehen bezala altsatuko,
gure gainean karitatez
badia distiratsutik kanpo,
eta haize epelak putz egingo du itsasotik
artoaren hostoak mugituz
soinu baketsuarekin.

Atsekabetuta, atsekabetuta
dago mozketak hutsik utzi duen belar urdinaren gunea.
Eta petaloak lurrera erori dira
zuhaitza fruiturik gabe utziz.
Ez dugu berriro sentituko eguzkia:
bizkar makurtuak berotzen zituena
eta belar txar lehorrak
zuztarretik kentzen zituena.
Iluntasunean hilko gara eta eurian lurperatuko gaituzte.

Heriotz bikainetik
oinordetu dugu
haziarentzako ildo gozoa eta belar txar ahula,
begira orain barea eta arpilatze lizuna.
Gaizkiak suntsitzen du
lirioa eta artoa,
haien beheraldiaren lekuko izan gara.

Utziguzue hemen esertzen, gelditu egoten,
hementxe, egongelan hil arte.
Ibilian dator heriotzaren pausua, zutitu da eta badoa.
Gure seme-alaben seme-alabei atari ederra uzten die,
eta zumarra,
eta lur hondatu bat
aitzur hautsi batekin lantzeko.

[2013]



MILLAY ETA BAEZEN SACCO ETA VANZETTI

Edna St. Vincent Millay (1892-1950) amerikako poeta, operako libretogile eta antzerkigileak Sacco eta Vanzettiren hilketaren ostean idatzi zuen poema naturazalea hau.



Ennio Morriconeren «Here's To You» (1971) Ereserkia izan da belaunaldi askorentzat, Joan Baezek (1941) abestia Montaldoren *Sacco e Vanzetti* filmerako. Abestian hamar bidez errepikatzen dira bertso berak, salmodikoki, buklean.

Afera historiko hau aitzaki hartuta, aipa genitzake ere Sinclairen *Boston: Nobela bat* (1928). Sarean zerrenda sistematikoak daude anarkiston erailtzearen gaineko fikziozko eta dokumentazio lanei buruz. Vanzettiren eskutitz eta parte hartze publikoak, literaturatzat hartuta, Jon Arano (1989) eta Joseba Sarrionandiak (1991) itzuli dituzte jada.

Here's to you

Here's to you, Nicola and Bart
Rest forever here in our hearts
The last and final moment is yours
That agony is your triumph.

[1971]
Joan Baez

Hemen zaudete

Hemen zaudete Nicola eta Bart
izan bakea geure bihotzetan
amaiera eta azken unea zeuena da
agonia hau zeuen garaipena da.

[2013]



ARESTIREN TROTSKI

Eztabaidatu ohi da autoreak bizian argitaratu ez duena argitaratu behar ote den ala ez. Kasu honetan, eskerrak Gabriel Arestiren «Poesia argitaragabea. Azken poesia» eskura dugula (Susa, 1986 Donostia). Liburu honetan daude, besteak beste *Bertolt Brecht-en gorazarrez*, *Gorata gora beti* eta jada panfleto hauetan gaztelaniaratu genuen *Josepa Mendizabal Zaldibian*.

Zeren Leo

Zeren Leo bar Dabit
ez baitzen hil
hamasei urte berantago
Mexikon,
Zesarrek
asasina-erazia.

Zeren Leo bar Dabit
hamasei urte lehenago
hil baitzen,
Zesarren jaio-lurrean,
mendi kaukasikoetan,
1924 urteetako
urtarril
haretan.

Hala ere
(eta horregatik),
Leo bar Dabitek
erreboluzionario guztion
obligazioa
kunplitu baitzuen:
Egin zuen
erreboluzioa.
Erreboluzio sobietikoa.

[1975]
Gabriel Aresti

Porque Leo

Porque Leo bar David
no murió
dieciséis años después
en México,
asesinado por el
César.

Porque Leo bar David
murió
dieciséis años antes,
en la tierra natal del César,
en los montes del Cáucaso,
en enero
de aquel año
1924.

de todos modos
(y por esa razón),
Leo bar David
cumplió con
la obligación
de todo revolucionario:
hizo
la revolución.
La revolución soviética.

[2013]



VERLAINEN LOUISE MICHEL

1871ko abenduan Victor Hugok ere «Viro Major» idatzi zion. Hantxe jasotzen da: «*Hil egin dut! Hil nazatela*» oihukatzen zenuen/ eta jendetzak bere burua salatzen zuen emakume arranditsua entzuten zuen» eta gero «epaileek murmurikatzen zuten: *“Hil dadila! Justua da –esaten zuten epaileek–/ zitala da (...)*».

Paul Verlaineek 1888ko *Amour* liburuan argitaratu zuen poema. Aurretik ekarri izan dugu Metz-eko poeta Rimbaud-ekin idatzi zituen uzki poemengatik. Honakoan beste iraultzaz ari da Verlaine.

Louise Michelek berak poemak idatzi zituen askotariko gaiak jorratuaz.

Ballade en l'honneur de Louise Michel

Madame et Pauline Roland
Charlotte, Théroigne, Lucile.
Presque Jeanne d'Arc, étoilant
Le front de la foule imbécile,
Nom des cieus, coeur divin qu'exile :
Cette espèce de moins que rien
France bourgeoise au dos facile
Louise Michel est très bien.

Elle aime le Pauvre âpre et franc
Ou timide, elle est ta faucille
Dans le blé mûr pour le pain blanc
Du Pauvre, et la sainte Cécile,
Et la Muse rauque et gracile
Du Pauvre et son ange gardien
A ce simple ; à cet imbécile.
Louise Michel est très bien.

Gouvernements et mal talent,
Mégathérium ou bacille,
Soldat brut, robin insolent,
Ou quelque compromis fragile.
Tout cela son courroux chrétien
L'écrase d'un mépris agile.
Louise Michel est très bien.

Envoi

Citoyenne ! Votre évangile
On meurt pour ! c'est l'Honneur! et bien
Loin des Taxil et des Bazile
Louise Michel est très bien.

[1888]
Paul Verlaine

Louise Michelen ohorezko balada

Andrea eta Pauline Roland
Charlotte, Théroigne, Lucile.
Ia Joana Arc-ekoa. Jendetza ergelaren
kopetak izarreztatuta, zeruen izena,
erbesteratutako bihotz jainkotiarra:
eskudiru hau ezereza baino gutxiago da
bizkar errazeko Frantzia burgesa
Louise Michel bikaina da.

Txiroa maite du garratza eta egiatia
edo lotsatia denean, bera igitia da
txiroaren ogi zuriarentzako
gari helduan, eta Santa Zezilia,
eta txiroaren musa marrantatu
eta mehea eta bere guardako aingerua
sinple hone, ergel honi.
Louise Michel bikaina da.

Gobernuak eta talentu txarra,
megateriao edo baziloa,
soldadu basatia, epaile lotsagabea
edo konpromiso hauskorra.
Hau guztia bere haserre kristauak
suntsitzen du mespretxu arinez.
Louise Michel bikaina zara.

Bidalketa

Hiritar! Zeuen ebangelioagatik
ari gara hiltzen! Ohorea geurea! Bada
Taxil eta Bazile sendietatik urrun
Louise Michel bikaina da.

[2013]